PASAIAKO HIRI-INGURUNEKO AZPIEGITURA BERDEA ETA HERRITARRENTZAKO BABESLEKU KLIMATIKOEN SAREAPARTE-HARTZE PROZESUA

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA 1

1.- SARRERA 3

2.- TESTUINGURUA 4

2.1.- TESTUINGURU OROKORRA 4

2.1.1.- PASAIAKO KLIMA ETA ENERGIAREN TOKIKO PLANA 5

2.1.2.- PROIEKTUAK ERAGINGO DIEN EKINTZA-PLANEKO ILDOAK ETA EKINTZA ZEHATZAK 7

2.2.-AZPIEGITURA BERDEA 9

2.3.- BABESLEKU KLIMATIKOAK 11

2.3.1.- BABESLEKU KLIMATIKOEN EZAUGARRIAK 13

3.- PASAIAKO AZPIEGITURA BERDEA 14

4.- PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOEN SAREA 15

5.- AZPIEGITURA BERDEAREN ETA ATERPE KLIMATIKOEN MANTENU ETA GARAPENERAKO AUKERA ETA PROPOSAMENAK 16

5.1.- ANTXO 17

5.2.- TRINTXERPE 17

5.3.- SAN PEDRO 18

5.4.- DONIBANE 18

5.5.- BESTEAK 19

5.6.- SARETIK KANPO GELDITU DIREN BARNEALDEKO BABESLEKUAK 19

7.- ERANSKINAK 21

I. ERANSKINA: Kanpoaldeko aterpeen fitxak 22

II. ERANSKINA: Barrualdeko aterpeen fitxak 38

III. ERANSKINA: Azpiegitura berdearen ezaugarriak 1

3.1.- HIRI EREMUKO PARKEAK 1

3.2.- IBAI ETA ITSAS IBILGUAK 2

3.3.- ZUHAITZAK DITUZTEN PASEALEKUAK 2

3.4.- HERRIKO PLAZA BERDEAK 2

3.5.- BERDEGUNEAK/BARATZEAK/ERAIKINEN ARTEKO LORATEGIAK 4

1.- SARRERA

Proiektu honek helburu bikoitza du: batetik, Pasaiako udalerriko **hiri-eremuko azpiegitura berdea identifikatzea;** Eta bestetik, beroak udalerriko herritarrengan eragin ditzakeen kalteak murrizteko balioko duen **babesleku klimatikoen sarea osatzea**.

Azpiegitura berdea Europar Batasunetik datorren kontzeptua da, honela definitzen dena: *"Estrategikoki planifikatutako balio handiko eremu natural eta erdinaturalen sarea, ahalik eta zerbitzu ekosistemiko gehien emateko eta biodibertsitatea babesteko diseinatua eta kudeatua, landa zein hiri eremuetan".* Proiektu honetan **hiri inguruneko azpiegitura berdea**ren identifikazioa egin nahi izan da.

Azpiegitura berdea osatzen duten eremu horien azterketa sakonago bati esker, horien artean **herritarrentzako babesleku klimatiko** gisa jarduteko gaitasuna duten **kanpoko** eremuak identifikatu dira. Gune horiez gain, Pasaiako udalerriak eskaini ditzakeen **barruko** babesleku klimatikoen identifikazioa ere barneratu da.

2.- TESTUINGURUA

2.1.- TESTUINGURU OROKORRA

Jakina da **aldaketa-klimatikoa** garai hauetako erronka nagusienetako bat dela. IPCC-k 2023 urtean argitaratu zuen azken txostenean adierazten da klima-aldaketak planeta guztiari eragiten diola eta **bizkortzen eta areagotzen** ari dela; Horren aurrean sektore eta eskala guztietan **neurriak** hartzea ezinbestekoa dela azpimarratzen da. Txostenak ondorioztatzen du, gainera, egokitzapen-neurriek erresilientzia hobetu dezaketela neurri efektiboan.

Euskadin berriki onartutako trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren 1/2024 legeak helburutzat du, besteak beste, **lurraldearen egokitzapen-gaitasuna areagotzea** erresilientzia handitzeko eta zaurgarritasuna murrizteko. Lege horrek tokiko erakundeak behartzen ditu klima-aldaketaren arintzeari eta egokitzeari buruzko jarduketak txertatzera euren plangintzetan; Pasaiako udalak obligazio hori bete zuen Klima eta Energiaren Tokiko Planaren idazketarekin, bertan jasotzen baitira klima-aldaketari dagozkion ekintza ugari.

Proiektu honen garapenarekin, gainera, Pasaiako Udalak aipaturiko legean ezartzen diren hainbat betebeharrei erantzuten die:

43. Artikulua. 1.– Lurralde- eta hirigintza-plangintza eta -kudeaketak eta hiri-inguruneetako esku-hartzeek, klima-aldaketaren ondorioetara egokitze aldera, helburu hauek izango dituzte:

c) Hirigintza eta eraikuntza arloetan klima-aldaketara egokitzeko tokian tokiko eredu berriak garatzea, lurzoruaren iragazkortasuna eta hirietako gune berdeak sustatuz.

e) Hiria berroneratzeko esku-hartzeak baliatzea egokitzapen-neurriak txertatzeko, printzipio bioklimatikoak ezarriz hiri- eta arkitektura-diseinuan.

f) Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako irtenbideak sustatzea, ekosistemak eta gizartearentzako zerbitzuak berroneratzeko mekanismo gisa, lurraldeen eta hiriguneen erresilientzia eta herritarren osasuna mantentzeko eta hobetzeko.

46. Artikulua. Natur ondarea babestea. a) Ekosistemen dibertsitatea, erresilientzia eta kontserbazio-egoera ona bermatzea, konektibitate ekologikoa handitzea, zerbitzu ekosistemikoak zaintzea eta sustatzea eta egungo presioak murriztea. c) Azpiegitura berdea sustatzea, klima-aldaketaren inpaktua murrizteko naturagune babestuen ondoko eremuetan

49. Artikulua. Osasun-sistema. Klima-aldaketak osasun publikoan sortzen dituen efektuei buruzko ezagutza hobetzea sustatuko dute euskal administrazio publikoek, eta mekanismoak garatuko dituzte klima-aldaketaren efektuek biztanleen osasunean sor ditzaketen arriskuak prebenitzeko eta horien aurrean babesteko, arrisku emergenteak barne.

2.1.1.- PASAIAKO KLIMA ETA ENERGIAREN TOKIKO PLANA

Pasaiako Udalak **Klima eta Energiaren Tokiko Plana** garatu zuen 2023 urtean. Plan hori idazteko prozesuan Pasaiako herriaren **diagnostikoa** egin zen, energia eta klimari dagokionez. Klima-aldaketaren egokitzapenaren arloan, etorkizuneko **klima-proiekzioen** eta **arrisku posibleen** azterketa burutu zen, besteak beste.

Ondorengo taulek jasotzen dituzte RCP 8,5 agertokiaren arabera Pasaian espero diren **klima proiekzio** esanguratsuenak hainbat epetan banatuta.

Taula 1: Tenperatura eta prezipitazioen joera aldagaien proiekzioa Pasaiako udalerrian. Iturria: Pasaiako Klima eta Energia Plana

	JOERA					
	GUTX. TENP.	BATEZ BESTEKO TENP.	GEH. TENP.	EGUNEKO PREZIPITAZIOA (mm/eguneko)	URTEKO PREZIP. (mm/urteko)	EURI-EGUNAK Pr>=1mm
1971-2000	9,6	13,8	18,1	4,64	1694	146,1
2011-2040	10,3	14,8	19,3	4,74	1729	143,3
2041-2070	11,5	15,9	20,4	4,71	1720	138,2
2071-2100	13,0	17,4	21,8	4,45	1624	128,0

Taula 2: Tenperatura eta prezipitazioen muturreko aldagaien proiekzioa Pasaiako udalerrian. Iturria: Pasaiako Klima eta Energia Plana.

	MUTURREKOAK						
	GAU TROPIKAL KOP. (Gutx.T>20°C)	BERO-BOLADEN IRAUPENA	EGUN BERO KOPURUA	IZOTZ EGUNAK (Geh.<0°C)	IZOZTE EGUNAK (GauekoT<0° C)	PREZIPITAZIO OSO HANDIKO EGUNAK Pr>=20mm	LEHORTE EGUNAK Pr<1mm
1971-2000	2,8	0,3	37,2	0,084	11,47	23,6	23,6
2011-2040	6,8	0,9	58,0	0,018	7,05	25,8	62,6
2041-2070	16,7	2,5	84,9	0,004	4,52	25,2	60,1
2071-2100	39,4	6,1	129,0	0,000	1,77	23,6	55,5

1 eta 2 taulek adierazten duten moduan, klima-aldaketaren eragina nabarmena izatea espero da Pasaiako udalerrian ere, mende amaierarako ondorengo aurreikuspenekin RCP8,5 agertokiaren arabera:

- Tenperaturen **1,5 eta 5 °C gradu arteko igoera**.
- **Euri-egunak gutxitzea** baina prezipitazio **intentsitate handia** izatea.
- **Egun beroen kopurua** eta **bero-boladen iraupena handitzea**.
- **0 azpiko tenperatura egunak gutxitzea**.

Gainera, diagnostikoak jasotzen duenez, Pasaiako barrutien artean ere badago aldea tenperaturari dagokionez; itsasoarekin kontaktua duten hiru barrutietan (Donibane, Trintxerpe eta San Pedro) tenperatura arinagoak antzematen dira Pasai Antxon baino (Ikus 1.Irudia).



Irudia 1: Pasaiako udalerriko tenperaturaren proiekzioa.
Iturria: Pasaiako Klima eta Energia Plana.

Klima-aldaketaren ondoriozko **arrisku eta zaurgarritasuna**ri dagokionez, honako hiru inpaktu-kateak nabarmentzen dira Pasaiako udalerrian:

- **Bero boladen eragina giza osasunean**
- **Itsas-mailagatiko ibai-uholdeak hiri-ingurunean**
- **Lehorte garaiek nekazaritza eta abeltzaintzan duten eragina**.

Bero-boladek giza osasunean izan dezaketen eraginak erakusten du arrisku maila handiena Pasaian, biztanleriaren zahartzearen eta dentsitate handiaren ondorioz eta eremu-berde eta itzalgune kopuru urriaren ondorioz. Gainera, ildo honetako lehentasunezko esku-hartzeak ere definitzen dira planean (ikus 2. Irudia), proiektu honi justifikazio sendoa ematen diotenak:

- Bero-boladen aurreko alerta-sistemak ezartzea[8] (Biztanleriari zuzendutako abisuak, alertak bidaltzea, aholkuak ematea eta larrialdi-neurriak hartzea).

  Udalerrian naturan oinarritutako soluzioek dituzten aukeren analisia egitea, espazio publikoa zein pribatua kontuan hartuko dituena eta hiri-inguruneko azpiegitura-sare berde bat antolatzea ahalbideratuko duena.Biztanleak espazio berdeetara eta berdeguneetara erraz irits daitezen ziurtatzea, batez ere biztanlerik zaurgarrienak (adineko pertsonak eta/edo mugikortasun-arazoak dituztenak eta haurrak).

  Edateko ura ematen duten behar adina iturri bermatzea Eraikinak berroneratzea, eraginkortasunaren eta klima-agertoki berrietara egokitzearen aldeko apustua egiten duten soluzioekin.

  Itzalguneak jartzea, hiri-espazioa lagunkoiagoa eta bizigarriagoa egingo dutenak, etorkizuneko klima-agertokiak kontuan hartuta.

Irudia 2: Bero-boladek Pasaiako herritarrengan izan dezaketen eragina murrizteko lehentasunezko esku-hartzeak. Iturria: Pasaiako Klima eta Energia Plana.

Etorkizun hurbileko egoera horri aurrea hartzeko Pasaiako Udalak **tokiko egokitzapen neurriak** hartzeko beharra antzeman du eta proiektu hau horren ondorio da; Babesleku klimatikoen sarea aurreikusten diren muturreko tenperaturen eta bero-boladen aurrean herritarrak babesteko baliagarria izango da. Hiri Azpiegitura Berdearen identifikazioa, berriz, udalerrian hirigintza jasangarriagoa egiteko euskarria izango da, klima-aldaketaren aurrean udalerria erresilienteagoa bihurtuz.

2.1.2.- PROIEKTUAK ERAGINGO DIEN EKINTZA-PLANEKO ILDOAK ETA EKINTZA ZEHATZAK

Klima eta Energiaren ekintza-planean 8 ildo estrategiko barneratzen dira eta bakoitzean Udalak 2030 urtera begira burutzeko ekintza zehatzak zehazten dira. Proiektu honek 8 Ildo horietako 3 garatzeko bidean lan egiten du:

L3: GARRAIO PUBLIKOAREN ETA MOTORRIK GABEKO BALIABIDEEN ERABILERAN OINARRITUTAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA

L5: PERTSONEN OSASUNA BABESTEA ETA HIRI-INGURUNEAN EROSOTASUN TERMIKOA HOBETZEA

L6: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRI-EREDU BAT SUSTATZEA, HIRI- ETA LANDA-BIODIBERTSITATEA SUSTATZEKO

Pasaiako babesleku klimatikoen sarea ekintza-planean jasotako 5.2.1 ekintza bera da:

5.2.1 Bero-boladetan biztanle zaurgarriei baliabide gisa balio izango dieten hiri-eremu freskoak identifikatzea, egokitzea eta mantentzea (itzaldun plazak eta pasealekuak, iturriak…

Hiri-azpiegitura berdearen identifikazioa ere, 6.4.2 ekintza zehatzean jasotzen da:

6.4.2 Udalerriko hiri-azpiegitura berdea definitzea, hura kontserbatzeko ekintzak planifikatzea eta mantenu-lanetarako funtsak bideratzea

Gainera, ekintza-planean jasotako ondorengo ekintza zehatzak burutzearen bitartez Pasaiako Udalak hiri-azpiegitura berdea **mantendu eta indartuko** luke:

3.2.6 Bidegorri-sarea amaitzea, segurtasuna hobetzeko obrak barne, eta bizikletetarako aparkalekuak egokituta
3.2.7 Eskola-bideen sare bat sortzea
5.2.1.- Bero-boladetan biztanle zaurgarriei baliabide gisa balio izango dieten hiri-eremu freskoak identifikatzea, egokitzea eta mantentzea (itzaldun plazak eta pasealekuak, iturriak…
5.4.2.- Ikastetxeetako patioak itzalpeko espazioekin eta azalera berdeekin egokitzea

6.1.1.- Espezie inbaditzaileak eta izurriteak kontrolatzeko eta desagerrarazteko jarduketak indartzea
6.2.2.- Espazio komunak, etxebizitza-multzoen arteko espazioak eta etxadietako patioak berdetzea
6.3.2.- Plazak, haur-parkeak eta, oro har, udalerriko atseden-espazioak naturalizatzea
6.3.4.- Biztanleei berdeguneetara iristeko bide ematea, batez ere herritar zaurgarrienei
6.5.1.- Pasai Antxoko espazio librean, Molinao ubidetik hurbil, Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemak ezartzea
6.5.3.- Lorezaintzako jardunbideak klima-testuinguru berrira egokitzea (mantentze-lanak, espezieak landatzeko lanak, etab.)

PASAIAKO KLIMA ETA ENERGIA PLANA 2023-2030

2.2.-AZPIEGITURA BERDEA

Proiektu honetan Pasaiako udalerriko **hiri-inguruneko azpiegitura berdea** definitu da.

Lehenago aipatu bezala, azpiegitura berdearen kontzeptua Europar Batasunetik dator eta estatu kideetan pixkanaka garatzen ari den **Naturan Oinarritutako Soluzio** (NBS) bat da.

Estatu mailan, 2015eko natur-ondarearen eta biodibertsitatearen legeak (Ley 33/2015, de 21 de septiembre, por la que se modifica la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad) barneratu zuen lehen aldiz "azpiegitura berdea"ren kontzeptua eta bertako betebeharretatik sortu zen estatuko azpiegitura berdearen estrategia, 2021ean onartu zena.

Hortik abiatuta, autonomia erkidegoek ere euren azpiegitura berdea definitu zuten, EAEk barne; Eta horri jarraiki Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarea (GABS) ere osatu zen. GABSen baitan barneratuta dauden elementuen artean, hiri-azpiegitura berdea ere ageri da, jarraian azaltzen den moduan definituta eta justifikatuta:

"***Espazio berdeak edo libreak hiri inguruetan eta hirietan***:

Elementu honetan sartzen dira landa-parkeak, eraztun berdeak, ibai-ibilguak, hondartzak, parkeak, lorategiak eta hiri inguruetan edo aldirietan dauden baratzeak, bai eta hiri eremuan azpiegitura berdea garatzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein elementu ere.

Justifikazioa: Biztanlearen gehiengoa hiri inguruneetan biltzen denez, zerbitzu ekosistemikoak ematea are beharrezkoagoa da; izan ere, lagungarriak dira osasuna zaintzeko eta, oro har, hiri-bizitzaren kalitatea hobetzeko, onura fisikoak, psikologikoak eta emozionalak ekarriz; komunitatea sendotzeko; ekonomia hobetzeko; eta klima-aldaketak herri eta hirietan dituen eraginak arintzeko (uholdeak edo bero-uharteak, esaterako).

Testuinguru honetan interes berezia dute hiri inguruetako parkeek, konektibitate ekologikoa ere indartzen baitute eta biodibertsitatea, kultura-ondarea eta ingurumen-heziketa kontserbatzen baitituzte."

Pasaiako Hiri Azpiegitura Berdearen sarearen identifikaziorako aurretik aipatutako elementu horiek hartuko dira kontuan.

Hiri Azpiegitura Berdearen helburu nagusia **ondare naturala babestea** da, hirigintzan irtenbide ekonomikoagoak, iraunkorragoak eta berritzaileagoak egitea ahalbidetuz. Horren identifikazioaren, mantenuaren eta hobekuntzaren bidez herritarrei **ingurumen zerbitzuak eskaintzen** zaizkie: giza osasuna babestea, klima aldaketari aurre egitea, airearen eta uraren kalitatea hobetzea, aisialdirako espazioak eskaintzea, etab.

Hiri-inguruneko azpiegitura berdea herriko elementuen eta eremu natural handiagoen arteko "trantsizio eremu" bat litzateke, garrantzia handikoa. Gainera, hiri guneko espazio naturalen babes funtzioa ere badu, hiri-azpiegituraren hedaduraren aurrean. Honakoak dira hiri-azpiegitura berdearen **ezaugarri nagusiak**:

1.- Hiri- eta baso-eremuen arteko trantsizio-eremu gisa balio du.

2.- Mugikortasun ekologikoa eta biodibertsitatearen hobekuntza bermatzen ditu.

3.- Eremu naturalak babesteko eremu gisa jarduten du, hiri-hedapenaren aurrean.

4.- Udalerrietan natura gehiago integratzea ahalbidetzen du.

5.- Naturarekin harreman zuzena izateko eremu bat eskaintzen die herritarrei.

6.- Herritarren bizi-kalitatea eta osasun-egoera hobetzen lagundu dezake.

7.- Animalia-espezie askoren babeslekua da, besteak beste, espezie polinizatzaileena.

8.- Hesi akustikoa da, kutsadura murrizten duena eta erregulazio termikoa eskaintzen duena.

9.- Nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ekoizpenerako eremu potentzial bat sortzen du.

Hiri-azpiegitura berdea osatzen duten **elementuak** ugari dira: parke publikoak, espazio berdeak, lorategiak, hiriko zuhaitzak, gainazaleko uren babes guneak, baratzak, kirol eremu berdeak, akuiferoen babes eremuak, ibaiertzak, estalki eta harresi berdeak, mugikortasun jasangarriko eremuak, etab.

Honakoak dira hiri-azpiegitura berdeak hainbat arlotan eskaintzen dituen **onurak**:

OSASUN PUBLIKOA	BIODIBERTSITATEA ETA URAREN ETA AIREAREN KALITATEA	OROKORRAK
✓ Ongizate mentala ✓ Aisialdia aire librean ✓ Kirola ✓ Haurrentzako aisialdi eremua eta obesitatearen murrizketa ✓ Zarataren gutxitzea ✓ Tenperaturaren erregulazioa ✓ Bero-uharte efektuaren murrizketa ✓ Kutsaduraren murrizketa eta birika-gaixotasunen hobetzea ✓ Hiri-biodibertsitatearen paisaia	✓ Espezieen aberastasuna dakar ✓ Karbono atmosferikoaren finkatzea ✓ Kutsatzaileen ingurumen filtroa ✓ Jariatze-uren eta uholdeen gutxitzea ✓ Hiri-drainatze sistemen hobekuntza ✓ Akuiferora iristen diren uren kalitatearen hobetzea	✓ Klima-aldaketaren aurkako ekintzan laguntzen du, arintzean eta egokitzean. ✓ Bero-uharte efektua murrizten du eta tenperatura erregulatu ✓ Herritarrentzako aisiarako guneak eskaintzen ditu ✓ Udalerriaren balore kultural eta paisajistikoak hobetzen ditu, turismoa bultzatuz. ✓ Mugikortasun jasangarriaren bidean laguntzen du ✓ Udalerriaren garapen jasangarrirako trantsizioa ahalbidetzen du.

2.3.- BABESLEKU KLIMATIKOAK

IPCC-k azken urteetan burutu dituen hainbat ikerketen arabera, klima aldaketaren ondoriozko **muturreko tenperaturak** gero eta ohikoagoak izango dira eta **bero-boladen maiztasuna, intentsitatea eta iraupena** areagotu egingo dira. Fenomeno meteorologiko horiek larriak dira eta herritarren osasunean zuzenki eragiten dute, gaixotasun eta heriotza-tasak handituz.

Bero-kolpeak, akidura, sinkopeak, sarpullidoak, nekea eta karranpak dira beroak eragindako sintometako batzuk. Horietako gaixotasun asko sistema termoerregulatzaileko akatsen sintomak dira, eguzkitan egon eta egun gutxira agertzen direnak. Pertsona talde jakin batzuk, hala nola adinekoak edo arazo kardiobaskularrak eta arnasketakoak dituztenak, askoz ere sentikorragoak dira tenperatura altuekiko. Gehiegizko beroak, gainera, pertsonen gogo-aldarteari eta osasun mentalari ere eragiten die. Beroaren kalteak, gainera, nabarmenagoak dira hiriguneetan, bero-uharte (Urban Heat Island) deritzon efektuaren ondorioz: hiriguneetan eraikinen eta biztanleriaren dentsitatea handia da, eraikinek eta bestelako azalerek beroa eta eguzki erradiazioa xurgatzen dituzte eta haize-fluxuen bidezko hoztea galarazten dute. Gainera, hiri-eremuetan airearen kalitatea landa eremuetakoa baina eskasagoa da.

Egoera honek, osasunean eragiten dituen kalteez gain, **klima-aldaketaren fenomenoa gero eta larriagoa** bihurtzea ere egin dezake. Eraikinak hozteko beharra handitzen da eta horrek eraikinen eraginkortasun energetikoan eta ondorioz, Berotegi Efektuko Gasen isurian eragiten du.

Etorkizun hurbileko egoera horren aurrean, tokiko erakundeek erabakiak hartu behar dituzte klima-aldaketaren inpaktuen aurrean herritarrak babesteko. Pasaiako Udalak abiarazi duen proiektu hau, beraz, **klima-aldaketara egokitzeko neurri** gisa uler daiteke.

Babesleku klimatikoak **baldintza zehatz batzuk** betetzen dituzten **barneko zein kanpoko** guneak dira, tenperatura altuak eta bero-boladak ematen direnean beroak herritarrengan sor ditzakeen kalteak murrizteko helburua dutenak eta herritarrek **freskatzeko gune gisa** erabili ahal izango dituztenak. Espazio horiek herritar ororentzako eskuragarri egongo diren arren, proiektuak bereziki **pertsona zaurgarrienak** babestea du helburu: pertsona helduak, arnas-gaixotasunak dituztenak, gaixotasun kardiobaskularrak dituztenak, 4 urtetik beherako haurrak, haurdun dauden emakumeak, etab.

Aterpe klimatikoek beroaren aurrean herritarrak babestea helburu badute ere, ezinbestekoa da horrelako egoeretan osasun arloko erakundeen gomendioak jarraitzea: tenperatura altuenak ematen diren orduetan kalera ez irtetea, ondo hidratatzea, etab. Garrantzitsua da azpimarratzea, gainera, aipatutako guneek ez dutela inolaz ere osasun arretarik eskainiko eta kalteak jasaten dituzten herritarrek osasun zentroetara jo beharko dutela horrelako kasuetan.

2.3.1.- BABESLEKU KLIMATIKOEN EZAUGARRIAK

Esan bezala, gune horiek bero handiko egunetan biztanleria zaurgarriena babestera bideratutakoak dira. Helburu dute muturreko tenperatura altuek eta bero-iraunkorrak herritarrengan eragin ditzakeen kalteak murriztea. Horregatik, Pasaiako kanpoko zein barneko babeslekuek baldintza zehatz batzuk bete behar dituzte, herritarren erosotasuna bermatuko dutenak:

1.- Uda garaian zabalik egotea:

Aterpe klimatikoak tenperaturak altuenak diren garaian irekita egon behar dute; Hau da, uda garaian ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.

2.- Doakoak izatea eta herritar ororentzat sarbidea izatea:

Pasaiako aterpe klimatikoak doakoak izan behar dira eta herritar orok eduki behar du bertaratzeko aukera, salbuespenik gabe.

3.- Irisgarritasuna:

Babesleku klimatikoak irisgarriak izan behar dira herritarrentzat, bereziki zaurgarriak diren horientzat: adinekoak, gaixotasunak dituztenak, haurrak, haurdun dauden emakumeak, etab.

4.- Konfort termikoa eskaintzea:

Guneek tenperatura, hezetasun eta aireztapen baldintza egokiak bete beharko dituzte. Orokorrean, komeni da tenperatura 26 °C-tik beherakoa izatea.

** Kanpoko aterpeen kasuan ezingo da bermatu tenperaturak ez duela atalase hori gainditzen, baina kasu guztietan, itzala duten eta freskotasuna eskaintzen duten guneak izango dira.

5.- Atseden hartzeko aukera ematea:

Gune horietan atseden hartzeko eta eroso egoteko tokia eduki beharko dute erabiltzaileek: eserlekuak edo lasai egoteko guneak. Gainera, hobetsi egingo dira iturriak eta komunak dituzten eremuak.

6.- Seinaleztapena:

Pasaiako aterpe klimatikoak dagokion ikurrarekin ondo seinaleztatuta egon beharko dira:

Garrantzitsua da azpimarratzea gune horiek jarraituko dutela euren ohiko funtzioa betetzen eta beraz babesleku klimatiko gisa erabiliko dituzten pertsonek errespetatu egin beharko dituztela gune bakoitzeko baldintza edota arauak.

3.- PASAIAKO AZPIEGITURA BERDEA

Pasaiako hiri-azpiegitura berdearen sareak **19,5 ha inguru** hartzen ditu, gutxi gorabehera, eta udalak etorkizunean egingo dituen esku-hartzeetarako babes-neurri izan nahi du. Azpiegitura berdea babestu eta mantentzeaz gain, etorkizunean hori hedatzea ere bada Pasaiako Udalaren nahia.



Mapan ageri den moduan, Pasaiako hiri-azpiegitura berdearen identifikazioan **zerbitzu ekosistemikoak** emateko gai diren honako elementu hauek gehitu dira:

1.- Hiri eremuko parkeak

2.- Ibai eta itsas-ibilguak

3.- Zuhaitzak dituzten pasealekuak

4.- Herriko plaza berdeak

5.- Berdeguneak/Baratzak/Eraikinen arteko lorategiak

4.- PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOEN SAREA

Pasaiako babesleku klimatikoen sarearen baitan kanpoaldeko 14 babesleku eta barrualdeko 8 babesleku identifikatu dira.



Kanpoaldeko babeslekuei dagokionez, azpiegitura berdearen baitan kokatzen diren eremuak dira gehienak (badira San Pedro eta Donibaneren kasuan azpiegitura berde moduan jo ezin daitezkeen kanpoko 4 babesleku -San Pedro kalea, San Pedroko herriko plaza, San Pedroko eskolako arkupeak eta Donibane kalea). I eta II eranskinetan kanpoaldeko eta barrualdeko babesleku bakoitzaren fitxak jasotzen dira, eremu bakoitzaren ezaugarriak zehazten dituztenak.

Kontuan izan behar da udalak sare honen jarraipena egin beharko duela aurrerantzean ere, identifikatutako guneek baldintzak betetzen dituztela ikuskatuz eta ahal den heinean sare hau hedatzeko ahalegina eginaz (ahal dela, naturan oinarritutako irtenbideak ezartzea baloratuz eta horrelako irtenbideak progresiboki hirigintza-jardueretan txertatuz).

5.- AZPIEGITURA BERDEAREN ETA ATERPE KLIMATIKOEN MANTENU ETA GARAPENERAKO AUKERA ETA PROPOSAMENAK



Azpiegitura berdearen eta babesleku klimatikoen mapak dinamikoak izan behar du eta jarraipena eskatzen dute. Proiektu honetan azpiegitura berdearen eta babesleku klimatikoen sarea hedatzeko eta dagoena hobetzeko proposamenak jaso dira; Horietako batzuk aholkularitza enpresak proposatu ditu zuzenean eta beste batzuk herritarrekin egindako parte-hartze saioetatik eratorriak dira.

Eremu potentzial horiek mapan adierazi dira, etorkizunera begira baliagarri izango direlakoan.

**Datozen orrietan hobekuntza proposamen batzuk jasotzen dira baina beste asko herritarrekin egindako parte-hartze saioen aktetan jasotzen dira.

5.1.- ANTXO

1.- Pasaiako Udalak Antxoko barrutirako egindako lanean, berdatzeko proposamen ugari egiten dira, Pasaiako azpiegitura berdearen sarea handitzea ahalbidetuko luketenak.



Propuestas A - Emergencia reverdecer

2.- Plaza berriaren eraikuntzan eta topoaren lurperatzean azpiegitura berdea eta babesleku klimatiko izateko aukera kontuan izatea.

3.- Luzuriaga eraikinerako proiektu berrian irizpide bioklimatikoak eta jasangarritasuna kontuan hartzeak mesede egingo lioke azpiegitura berdeari. Gainera, barneko babesleku klimatiko izateko moldatu beharko litzateke.

4.- Molinao errekaren ondoko obran ere azpiegitura berdea kontuan hartzea.

5.2.- TRINTXERPE

1.- Herrera eta Trintxerpe batzen dituen parkean pergola edo estalki berdeak ezartzea, itzala emateaz gain, drainatze jasangarria eta gainazaleko uren kontrola ahalbidetzeko. (*Eskumena ez da udalarena)

2.- Ulia inguruko baratza-eremua berritzean azpiegitura berdearen parte izango litzateke, irizpide egokiak betetzen baditu.

5.3.- SAN PEDRO

1.- Portuko parke berrian pergola edo estalki berdeak ezartzea, itzala emateaz gain drainatze jasangarria eta gainazaleko uren kontrola ahalbidetzeko. (*Eskumena ez da udalarena)

2.- Hilerriaren inguruko bidea egokitu, irisgarritasuna hobetu eta atseden hartzeko eserlekuren bat jartzea.

5.4.- DONIBANE

1.- Herriko sarreran dagoen berdegunean eserlekuak edo mahaiak jar litezke, gunea herritarren atseden gune eta babesleku klimatiko bihurtzeko. Meipi plazako babesleku klimatikoak dituen gabeziak (itzal falta) beteko lituzke gune honek.

2.- Donibane kaleko zelai berrietan itzalgune gehiago sortzeko aukerak aztertzea, zuhaitzak landatzea ezinezkoa balitz, pergolak ezarriz.

3.- Ermita ingurutik Donibane kalera jaisten den bidea egokitzea, herritarrek erosotasunez erabili dezaten.

4.- Jose Joakin Otaegui plazako zuhaiztian atsedenleku bezala funtziona dezaketen eserlekuak jartzea.

5.5.- BESTEAK

Ildo horretan gainera, nabarmentzekoak dira Pasaiako Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren (Pasaia Port, 2018) Berrikuspenean jasotzen diren esku-hartzeetako batzuk, jarraian aipatzen direnak kasu:

- Trintxerpe eta Pasai San Pedroko kaietan esku hartzeko planteamendua, ur-laminaren ertzean atsedenerako eta aisiarako espazio berri bat sortzea ekarriko duena.
- Euskadi Etorbidean eta Hospitalilloko kaian esku hartzeko planteamendua, eremu horretan atsedenerako eta aisiarako espazio zabalak sortzeko.
- Herrerako geltokitik San Pedroko kairaino eta Puntetako pasealekuraino oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatz bat sortzea (zati bat dagoeneko eginda dago plan hau idazterako unean).

Horretaz gain, Udalerrian Naturan Oinarritutako Konponbideak ezartzeko potentzialaren azterketa egitea gomendagarria litzateke, etorkizunean pixkanaka inplementatzeko. Lan horretan mantenurako beharrezko baliabideak eta suposatuko dituen kostuak kontuan hartuz eta mantenuko langileen sentsibilizazioa eta formakuntza bermatuz.

5.6.- SARETIK KANPO GELDITU DIREN BARNEALDEKO BABESLEKUAK

Aztertutako barnealdeko babeslekuetako batzuk ez dituzte beharrezko baldintzak betetzen eta beraz, saretik kanpo gelditu dira. Hala ere, eremu hauek beroagatiko alerta edo alarma egoera dagoenean herritarren babeserako gune gisa irekitzeko aukera legoke.

GUNEA	BAZTERTZEKO ARRAZOIA
HAZ bulegoa, Antxo	Barnealdeko babesleku klimatikoa den zaharren egoitzaren parean dago eta egoitza egokiagoa da ordutegia eta espazioari dagokionean.
Gizarte Zerbitzuen Bulegoa, Antxo	Ez dago herritarrei irekita, hitzordua behar da.
Musika Eskola, Antxo	Abuztuan itxita dago.
AEK, Antxo	Hezkuntza zentroa izanik abuztuan itxita dago.
Axular Plaza, Antxo	Ez du ia itzalik eta ez da oso freskoa
Musika Eskola Trintxerpe	Abuztuan itxita dago.
Azoka, Trintxerpe	Momentu honetan ez dago azokarik, etorkizunean berrezarriko balitz, babesleku

	klimatiko izateko baldintzak bete ditzala kontuan izan beharko litzateke.
Gizarte Ekintzako Bulegoa, Trintxerpe	Eremu txikia da, babesleku klimatiko den alkateordetzaren eraikinetik gertu dago eta duen izaeragatik herritarrak bertara bideratzea ez da egoki ikusten.
Bake-Epaitegia, San Pedro	Ordutegi zabala badu ere, eskailera asko ditu eta igogailurik ez. Sarrera estuan aulkiren bat gehitu ahal izango litzateke baina ez dugu uste konfort termikoa bermatuko litzakeenik.
San Pedroko Zaharren Egoitza	Irisgarritasuna ez da egokia eta normalean itxita egoten da.
Donibaneko puntetako kantina	Uda garaian jende dezente bildu daitekeen tokia izan daiteke eta kantinan ezer hartu gabe atseden hartzeko tokia edukitzea ezin da bermatu.
Donibaneko Zaharren Egoitza	Normalean ez da irekita egoten, udal arduradunen bat beharko litzateke.
Elizak	Ez dira udal eskumenekoak eta momentuz ez sartzea erabaki du udalak.

7.- ERANSKINAK

I ERANSKINA: Kanpoaldeko babesleku klimatikoen fitxak
II ERANSKINA: Barrualdeko babesleku klimatikoen fitxak
III. ERANSKINA: Azpiegitura berdearen ezaugarriak
IV. ERANSKINA: Parte-hartze saioen aktak

I. ERANSKINA: Kanpoaldeko aterpeen fitxak

Izena	KATUEN ETXADIA

Kokapena	Ibai bazterrean kokatutako parkea, Pasai Antxo	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Parkea eta berdegunea	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	2.200
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak

Ibai bazterrean kokatutako parke honek zuhaitz ugari ditu eta itzalpeko eserlekuak ere bai. Ibai bazterrean egoteak freskotasun sentsazioa areagotzea eragiten du.

Izena	MOLINAO PARKEA

Kokapena	Molinao parkea, Pasai Antxo	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Berdegunea eta pasealekua	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	✖
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	5.600
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Pasai Antxoko barrualdean kokatutako berdegunea, itzala ematen duten zuhaitz ugari ditu eta gainera, erreka bazterreko pasealeku freskoa ere badu.

Izena	ZUMALAKARREGI KALEA

Kokapena	Zumalakarregi kalea, Pasai Antxo	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Pasealeku berdea	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	2.300
	Iturria	-

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Biteri plaza Nafarroa hiribidearekin lotzen duen pasealeku honek itzala eta freskotasuna ematen duten zuhaitz errenkadak ditu albo bietan. Horien azpian atseden hartzeko eserlekuak ere badaude.

Izena	BONANZA PARKEA

Kokapena	Bonanza ibilbidea. Pasai Donibane	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Itzaldun plaza	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	420
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak

Bonanzako basilikaren ondoan kokatutako parkea, itsasoko freskotasuna eta zuhaitzen itzala eskaintzen dituena, eserlekuetan atseden hartzeko tokiarekin batera. Gainera, Donibane kalearekin lotura eginez, Donibane zeharkatzen duen ibilbide klimatiko egokia osatzen dute biek.

Izena	DONIBANE KALEA

Kokapena	Donibane kalea. Pasai Donibane	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Ibilbidea	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna (Bonanza elizatik gertu)	✓
	Gutxi gorabeherako luzera (m)	480
	Iturria	✓
Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak		
Lezo ibilbidea eta Bonanza ibilbidea lotzen dituen kalea, itsasoko freskotasuna eta kalea zeharkatzen duten eraikinen materialek eskaintzen duten freskura dituena. Donibane kaleko puntu ezberdinetan (bereziki 2tan) aterpea duten eserlekuak daude. Donibane kaleko 3 puntutan iturriak daude eta komun		

publikoak Bonantza ibilbidetik gertu daude.

Izena	MEIPI PLAZA

Kokapena	Lezo bidea, Pasai Donibane	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Berdegunea eta parkea	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	590
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Pasai Donibaneren sarreran dagoen parkea da, platano zuhaitz errenkada luzea du, parkeko eserlekuei itzala ematen diena.

Izena	AZKUENEKO PARKEA

Kokapena	Azkueneko parkea, Trintxerpe	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Berdegunea	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	2.048
	Iturria	✓
Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak		
Pasaiak Donostiarekin muga egiten duen kalean (Azkuene kalean) bertan kokatutako parkea da, irisgarritasun egokia du eta freskotasuna eskaintzen du.		

Izena	FUTBOL ZELAI ONDOKO GUNEA

Kokapena	Futbito zelaiko atseden gunea, Trintxerpe	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Itzaldun plazak	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	1.958
	Iturria	✓
Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak		

Trintxerpeko futbito zelaiaren ondoan dagoen gune txikia da baina babesleku klimatiko izateko egokia, eserlekuak eta itzala eskaintzen ditu. Bertako zenbait plazatxotan kokatutako eserlekuen kokapena aldatzea komeni da eta irisgarritasuna hobetzeko asmoz, egokia litzateke aldagelen eraikinaren alboko paretan malda igo eta jaisteko heldulekua jartzea.
Gune honetatik gertu potentziala duen plazatxo bat dago (Ulia etorbidearen ondoan, Karmengo Ama plazan -Karmengo Ama ikastetxearen sarreratik gertu-) baina eserlekuen mantenua hobetu beharko litzateke eta iturri bat jartzea balora daiteke. Eserlekuen egoera hobetuko balitz, beste babeslekuaren zati izan daiteke, berri bat izendatu beharrik gabe.

Izena	MUSIKA ESKOLAKO PARKEA

Kokapena	Musika eskolako parkea, Trintxerpe	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Berdegunea	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	3.500
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Pasaiako musika eskolaren inguruan kokatutako berdegune zabala: itzalak, eserlekuak, zuhaitzak, iturria, etab. ditu, beroaren aurrean babesteko gune egokia da.

Izena	SERAFIN ESNAOLA PLAZA

Kokapena	Arrandegi kalea, Trintxerpe	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Itzaldun plaza	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	1.660
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Trintxerpeko plaza honek zuhaitzak eta berdegunea ditu, freskotasuna mantentzen lagunduko dutenak. Irisgarritasuna pertsona ororentzat egokia da eta atseden hartzeko eserlekuak ere baditu.

Izena	SAN PEDROKO ESKOLAKO ARKUPEAK

Kokapena	San Pedroko eskolako arkupeak (herriko plaza)	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Arkupeak	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	115
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Itzala eta freskotasuna eskaintzen duten plazako arkupeak, atseden hartzeko eserlekuekin.

Izena	HERRIKO PLAZA

Kokapena	San Pedroko herriko plaza	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Plaza	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna	-
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	450
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Itzala eta freskotasuna eskaintzen duen plaza. Eserlekuak elizaren kontra daude. Bertan kokatuta dago ere barruko babesleku den San Pedroko liburutegiaren eraikina.

Izena	SAN PEDRO KALEA ETA TORREKO PLAZATIK GERTU DAGOEN PLAZATXOA

Kokapena	San Pedro kalea	
Barrukoa/ Kanpokoa	Kanpokoa	
Babesleku mota:	Ibilbidea	
Ordutegia	24 h	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	✓
	Itzala	✓
	Komuna (Torreko plazan)	✓
	Gutxi gorabeherako azalera (m^2)	60
	Iturria	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Itzala eta freskotasuna eskaintzen duten ibilbidea eta plaza. San Pedro kalearen erdiko aldean, gutxi gorabehera, badago eserlekuak eta iturria dituen beste plazatxo fresko bat ere baina momentuz babesleku potentziala izango litzateke, iturrira iristeko eskailerak baitaude:

II. ERANSKINA: Barrualdeko aterpeen fitxak

Izena	ALKATEORDETZAKO ERAIKINA. TRINTXERPE



Kokapena	Euskadi Etorbidea 0	
Barrukoa/ Kanpokoa	Barrukoa	
Babesleku mota:	Sarrerako hall-a + liburutegia	
Ordutegia	Eraikina: 7.00-22.00. Liburutegia: Liburutegia: astelehen-ostegun 10.00-12.45 eta 16.30-19.45. Ostirala 10.00-14.00. Asteburutan itxita. Uztaila eta abuztuan: 10.00 – 14.00	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	Egokitua
	Komuna	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Eraikin honetan, sarrera eta pisu ezberdinetan dauden atseden guneak erabili ahalko dira. Horretaz gain, 3. Pisuan kokatuta dagoen udal liburutegia ere erabili izango da beharrezko momentuetan beroaz babesteko. Udako ordutegia murriztua denez, beroagatiko alerta edo alarma egoerak daudenean eraikina herritarrentzako zabaltzea proposatzen da. **Barnealdeko babesleku klimatikoa izanik, eraikinak ohiko funtzioa betetzen jarraituko du eta beraz, babesleku klimatiko moduan erabiltzen duten herritarrek bertako arauak errespetatu beharko dituzte.

Izena	UDAL EUSKALTEGIA. TRINTXERPE

Kokapena	Euskadi Etorbidea 61.	
Barrukoa/ Kanpokoa	Barrukoa	
Babesleku mota:	Udaleko gazteria, kirola eta euskara saila, eskubidean eta udal euskaltegia daude eraikin honetan.	
Ordutegia	Astelehenetik ostiralera: 7.00-15.00. (ekainean 7.00-21.00)	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	Naturala (2025ean egokitua jartzeko asmoa)
	Komuna	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Sarreran udal bizikletak daude, baina bertatik igogailuan lehenengo pisura igota, atseden hartzeko baliagarriak izan daitezkeen tokiak topatu ditzakegu. **Barnealdeko babesleku klimatikoa izanik, eraikinak ohiko funtzioa betetzen jarraituko du eta beraz, babesleku klimatiko moduan erabiltzen duten herritarrek bertako arauak errespetatu beharko dituzte.

Izena	SAN PEDROKO LIBURUTEGIA

Kokapena	Herriko plaza	
Barrukoa/ Kanpokoa	Barrukoa	
Babesleku mota:	Udal liburutegia	
Ordutegia	Astelehenetik ostegunera 17.00-19.45	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	Naturala
	Komuna	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Ordutegia oso murriztua du, beroagatiko alerta edo alarma egoerak daudenean eraikina herritarrentzako zabaltzea proposatzen da. **Barnealdeko babesleku klimatikoa izanik, eraikinak ohiko funtzioa betetzen jarraituko du eta beraz, babesleku klimatiko moduan erabiltzen duten herritarrek bertako arauak errespetatu beharko dituzte.

Izena	SAN PEDROKO UDAL ARETOA

Kokapena	Morales Oliver plaza	
Barrukoa/ Kanpokoa	Barrukoa	
Babesleku mota:	Erabilera ezberdinetarako udal eraikina.	
Ordutegia	Ez du ordutegi finkorik. Egindako erreserben edo antolatutako ekitaldiei lotutako ordutegia izan ohi du.	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	Naturala
	Komuna	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Beroagatiko alerta edo alarma egoerak daudenean eraikina herritarrentzako zabaltzea proposatzen da. **Barnealdeko babesleku klimatikoa izanik, eraikinak ohiko funtzioa betetzen jarraituko du eta beraz, babesleku klimatiko moduan erabiltzen duten herritarrek bertako arauak errespetatu beharko dituzte.

Izena	PASAIAKO UDALETXEA

Kokapena	Donibane kalea, 19.	
Barrukoa/ Kanpokoa	Barrukoa	
Babesleku mota:	Udaletxearen beheko solairua	
Ordutegia	8.00-14.00	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	Naturala
	Komuna	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak	
Udaletxeko lehen solairuan, herritarrek beroaz babesteko baliatu lezaketen tokia dago, aulki batzuk gehitu beharko lirateke. **Barnealdeko babesleku klimatikoa izanik, eraikinak ohiko funtzioa betetzen jarraituko du eta beraz, babesleku klimatiko moduan erabiltzen duten herritarrek bertako arauak errespetatu beharko dituzte.	

Izena	DONIBANEKO KULTURGUNEA



Kokapena	Donibane kalea, 1	
Barrukoa/ Kanpokoa	Barrukoa	
Babesleku mota:	Udal liburutegia	
Ordutegia	**Liburutegia:** Astelehenetik ostegunera: 10.00-12.45 eta 16.30-19.45 Ostiraletan: 10.00 – 14.00 Asteburutan itxita. **Sarrera:**	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	Egokitua
	Komuna	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Liburutegia irekita ez dagoenean, sarrerako hall zabala ere erabili ahal izango dute herritarrek. Irisgarritasun egokia eta komunak ditu. Eserlekuren bat gehitu beharko izango litzaioke. **Barnealdeko babesleku klimatikoa izanik, eraikinak ohiko funtzioa betetzen jarraituko du eta beraz, babesleku klimatiko moduan erabiltzen duten herritarrek bertako arauak errespetatu beharko dituzte.

Izena	PASAI ANTXOKO KULTUR ETXEA

Kokapena	Hamarretxeta, 15	
Barrukoa/ Kanpokoa	Barrukoa	
Babesleku mota:	Udal liburutegia	
Ordutegia	**Liburutegia:** Astelehenetik ostegunera: 10.00-12.45 Asteburutan itxita.	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	Naturala
	Komuna	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Liburutegia toki egokia da bero handia egiten duen egunetan erabiltzeko. Aire egokiturik ez badu ere, beheko pisua izanik ez dio eguzkiak ematen eta fresko egoten da. Ordutegia oso murriztua du, beroagatiko alerta edo alarma egoerak daudenean eraikina herritarrentzako zabaltzea proposatzen da. **Barnealdeko babesleku klimatikoa izanik, eraikinak ohiko funtzioa betetzen

jarraituko du eta beraz, babesleku klimatiko moduan erabiltzen duten herritarrek bertako arauak errespetatu beharko dituzte.

Izena	PASAI ANTXOKO ZAHARREN EGOITZA

Kokapena	Axular plaza, 4	
Barrukoa/ Kanpokoa	Barrukoa	
Babesleku mota:	Zaharren egoitza	
Ordutegia	Astelehentik igandera: 10.00-13.00 eta 16.00-19.00	
Arduraduna	Pasaiako Udala	
Ezaugarriak	Atseden hartzeko tokia	✓
	Aireztapena	Egokitua
	Komuna	✓

Deskribapena eta bestelako datu baliagarriak
Antxoko zaharren egoitzak leku zabala du lasai eta fresko egoteko bero handiko egunetan. **Barnealdeko babesleku klimatikoa izanik, eraikinak ohiko funtzioa betetzen jarraituko du eta beraz, babesleku klimatiko moduan erabiltzen duten herritarrek bertako arauak errespetatu beharko dituzte.

III. ERANSKINA: Azpiegitura berdearen ezaugarriak

3.1.- HIRI EREMUKO PARKEAK

- Trintxerpeko musika eskolako parkea
- Trintxerpeko Domingo Blanco parkea

- Antxoko Molinao parkea
- Antxoko ibai ertzeko haurren parkea

3.2.- IBAI ETA ITSAS IBILGUAK

- Antxoko ibai bazterra
- San Pedroko lonjatik puntetarainoko pasealekua
- Donibaneko Bonantzatik Kalaburtzarainoko pasealekua

3.3.- ZUHAITZAK DITUZTEN PASEALEKUAK

- Antxoko Zumalakarregi kalea

- Trintxerpeko sarreratik porturaino doan pasealekua

3.4.- HERRIKO PLAZA BERDEAK

- Donibaneko Jose Joaquin Otaegi plaza

- Donibaneko Lezo bideko plazatxoa

- Antxoko Axular plaza

- Trintxerpeko Arrandegi kaleko plaza



3.5.- BERDEGUNEAK/BARATZEAK/ERAIKINEN ARTEKO LORATEGIAK

- Trintxerpeko eraikinen arteko berdeguneak
- Trintxerpeko futbol zelaitik eskolarako eremua
- Trintxerpeko goialdean Bidasoa kalearen ingurua
- San Pedroko Daniel Castelao kalearen inguruko eraikin arteko lorategiak
- San Pedro goialdeko hilerri inguruko bidea

-

- Donibaneko ermitatik herrigunera jaisten den bidearen ingurua
- Donibaneko Juan XII kalearen inguruko lorategiak
- Donibaneko portuaren sarrerako berdegunea
- Donibaneko San Roke kalearen inguruko lorategiak

III. ERANSKINA: Parte-hartze saioaren aktak

PASAIAKO HIRI-INGURUNEKO AZPIEGITURA BERDEA ETA HERRITARRENTZAKO BABESLEKU KLIMATIKOEN SAREA

PARTE-HARTZE PROZESUA

PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOAK. PARTE-HARTZE SAIOAK.

BERDINTASUN MAHAIA

Data: 2025-04-08

Iraupena: 13.30 – 14.15

Tokia: Pasaiako udaletxeko pleno-aretoa

Parte-hartzaileak: 5 emakume

Bileraren helburua: Pasaiako Babesleku Klimatikoen proiektua aurkeztea, identifikatutako kanpoko espazioen berri ematea eta hobekuntza zein espazio berrien proposamenak eta ekarpenak jasotzea:

- Identifikatuta dauden babesleku klimatikoak aztertu (hobekuntza beharrak, egokitasuna...).
- Kanpoko babesleku klimatiko gehiago proposatu (berduneak, parkeak…).
- Barneko babesleku klimatiko berriak proposatu (kultur etxeak, kiroldegiak, merkataritza-guneak, museoak…).

Bertaratutakoen ekarpenak:

ANTXO:

- Axular plazak ez ditu betetzen momentu honetan babesleku klimatikoa izateko baldintzak. Arratoiak ibiltzen dira eta dauden zuhaitzek ez dute itzal askorik ematen. Babeslekuen sarean mantentzeko, hobekuntza handia beharko luke.
- Molinao parkea Artxipi inguruarekin lotzeko beharra edo aukera mahaigaineratu dute. Donostia, Errenteria, Pasaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, eskumena norena den argitu eta hobekuntzak egin behar direla uste dute.
- Bekoz Beko emakumeen elkartea barrualdeko babesleku modura proposatu dute. Normalean arratsaldez irekita egoten bada ere, goizean irekitzeko arazorik ere ez litzatekeela egongo.
- Alamedan egiten ari diren obran gune berdea bermatzea eta babesleku klimatiko izateko baldintzak edukitzea ezinbesteko ikusten dute.

DONIBANE

- Bixi-bixiko plazan hobekuntzak egiteko beharra ikusten dute. Festak direla eta egitura finkorik jartzea ez dute posible ikusten baina egurrezko altzari mugikorren bat jarri eta landaredia bertan txertatzea aukera posiblea dela uste dute.

- Meipi plazak momentu honetan ez dituela babesleku klimatiko izateko baldintzak betetzen uste dute. Aspersoreak edo ur txorrotaren bat jartzea iruditzen zaie egokien, haur asko ibiltzen diren gunea baita.
- Ur-depositoaren inguruko zonaldea babesleku klimatikoen baldintzak betetzeko egokitu beharko litzatekeela uste dute.

SAN PEDRO:

- Lonjako parkearen eskumena nahiz eta ez udalarena izan, berdatzeko beharra ikusten dute.
- Erki udal aretoa proposatu dute barnealdeko babesleku klimatiko gisa.

Informazio gehigarria:

**Trintxerperen inguruko baloraziorik ez dute egin, orokorrean ez baitute zonaldea ondo ezagutzen.

**Pasaiako frontoiak babesleku klimatikoen sarearen baitan gehitzea proposatu dute, baina beti ere lehenago bermatuz baldintzak betetzen dituztela.

PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOAK. PARTE-HARTZE SAIOAK.

PASAIA-LEZO LIZEOA IKASTETXEA

Data: 2025-03-14

Iraupena: 9:30 – 10:30

Tokia: Pasaia-Lezo Lizeoa Ikastetxea

Parte-hartzaileak: 15 ikasle (9 neska eta 6 mutil)

Bileraren helburua: Pasaiako Babesleku Klimatikoen diagnosian identifikatu diren babesleku klimatikoak aurkeztea eta talde dinamika batekin babesleku klimatiko hauek baloratzea eta berriak proposatzea. Talde dinamikan hiru gai aztertu dituzte:

- Identifikatuta dauden babesleku klimatikoak aztertu (hobekuntza beharrak, egokitasuna...).
- Kanpoko babesleku klimatiko gehiago proposatu (berdeguneak, parkeak…).
- Barneko babesleku klimatiko berriak proposatu (kultur etxeak, kiroldegiak, merkataritza-guneak, museoak…).

Identifikatuta dauden babesleku klimatikoak aztertu (hobekuntza beharrak, egokitasuna...).

- Jose Joakin Otaegi Plaza egoera hobean jartzea (bankuak jarri, arratoiak egoten dira, jendeak pisa egiten du eta usain txarra egoten da…).

- Bonanzako parkean itzal gehiago jartzea, gaur egun dauden zuhaitzek ez baitute itzal nahikoa ematen.



Kanpoko babesleku klimatiko gehiago proposatu (berdeguneak, parkeak…).

PASAI ANTXO

- Alameda plaza ondoko obra bukatzean berdegune bat jartzea eta iturria.



- Viteri Plazako Zumardia frontoia

SAN PEDRO

- Albaola Itsas Kultur Faktoria museoaren inguruan iturriak eta bankuak jartzea.

PASAI DONIBANE

- Kalaburtza harrizko kalan bost bat banku eta iturri bat jartzea.

- Juanba Berasategi Kultur gunearen ondoko “Donibane” lorategi edo zelai txikian zuhaitz gehiago eta iturriak jartzea.

- Meipi kalean zuhaitz gehiago jartzea.

- Pasaia-Lezo lizeoa ikastetxeko “gaztelekua”, “parkea”, “beheko pista” eta “platanito” babesleku klimatiko egokiak izan daitezke.

- Txirristra handiaren aurreko frontoia babesleku klimatiko egokia izan daiteke.

- Donibaneko kiroldegiaren ondoko basoan eserlekuak jarri eta babesleku klimatiko izateko egokitu.

Barneko babesleku klimatiko berriak proposatu (kultur etxeak, kiroldegiak, merkataritza-guneak, museoak…).

PASAI ANTXO

- Antxoko udal-ludoteka (Eskalantegi kalea, 45).

PASAI DONIBANE

- Pasaia Donibane kiroldegia, Pasaia-Lezo Lizeoa ikastetxearen ondokoa.

- Pasai Donibaneko Liburutegia (ordutegia zabaltzea)

PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOAK. PARTE-HARTZE SAIOAK.

ANTXOKO JUBILATUEN ELKARTEA

Data: 2025-04-07

Iraupena: 19.15 – 20.00

Tokia: Pasai Antxoko Zaharren Egoitza

Parte-hartzaileak:

Bileraren helburua: Pasaiako Babesleku Klimatikoen proiektua aurkeztea, identifikatutako kanpoko espazioen berri ematea eta hobekuntza zein espazio berrien proposamenak eta ekarpenak jasotzea:

- Identifikatuta dauden babesleku klimatikoak aztertu (hobekuntza beharrak, egokitasuna...).
- Kanpoko babesleku klimatiko gehiago proposatu (berdugneak, parkeak…).
- Barneko babesleku klimatiko berriak proposatu (kultur etxeak, kiroldegiak, merkataritza-guneak, museoak…).

Bertaratutakoen ekarpenak:

- Orokorrean egoki ikusi dituzte Antxon identifikatutako lau guneak.
- Barnealdeko babesleku moduan zaharren egoitza bera eta kultur-etxea proposatu dituzte.
- Egiten ari diren eta egingo diren obretan (Alameda, topoa…) gune berdeak bermatzea eta babesleku klimatikoak sortzea beharrezko ikusten dute.

PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOAK. PARTE-HARTZE SAIOAK.

DONIBANEKO JUBILATUEN ELKARTEA

Data: 2025-11-12

Iraupena: 11.30-12.30

Tokia: Pasai Donibaneko Zaharren Egoitza

Parte-hartzaileak: Donibaneko zaharren egoitzako zuzendaritza taldea: Santi Garbizu, Maria Luisa Amiano, Javi Tamayo, Jesus Madinabeiti, Elena Elorriaga eta Kily Del Castillo

Bileraren helburua: Pasaiako Babesleku Klimatikoen proiektua aurkeztea, identifikatutako kanpoko zein barruko espazioen berri ematea eta hobekuntza zein espazio berrien proposamenak eta ekarpenak jasotzea:

- Identifikatuta dauden babesleku klimatikoak aztertu (hobekuntza beharrak, egokitasuna...).
- Kanpoko babesleku klimatiko gehiago proposatu (berdeguneak, parkeak…).
- Barneko babesleku klimatiko berriak proposatu (kultur etxeak, kiroldegiak, merkataritza-guneak, museoak…).

Bertaratutakoen ekarpenak:

- Jose Joakin Otaegi plazatik frontoira doan berdegunea freskoa dela diote baina pertsona helduek edo gurpildun aukia behar duten pertsonek ezin dutela bertara joan diote.
- Haurren parkea dagoen tokian itzalaren beharra sumatzen dute; Uste dute ondo legokeela itzala emango duen objekturen bat jartzea, pergolak edo funtzio bera beteko duen zerbait.
- Udaletxe ondoan eta kultur guneraino doan gune hori berdegune polita dela diote baina bertan itzala jartzea ezinbestekoa ikusten dute. Trintxerpe eta Herrera lotzen dituen parkearekin eta San Pedroko lonjaren gainekoarekin alderatu dute, arazo berdina dutela arrazoituz.
- Herriko plazara doan kalea freskoa da orokorrean.
- Herritik ermita ingurura doan tokia egokia iruditzen zaie, baina irisgarritasunaren arazoa garbia dela eremu horretan, eta pertsona zaurgarrientzat ez duela balio.

- Udaletxeko harrera tokia txikia dela diote. Harrerako mahaiak eta ondoko gelatxoa (igogailua duena) banatzeko bionbo edo antzeko zerbait beharko litzatekeela diote.
- Plazako udaletxe zaharraren eremua egokitu ahalko litzatekeela uste dute eta babesleku klimatiko bilakatu.
- Bonanzako eliza sarean sartzea oso egokia ikusten dute, beti irekita dagoela diote.
- Zaharren egoitza bera ere eremu egokia dela uste dute baina udalaren aldetik arduradunen bat jarri beharko litzatekeela eremua ireki eta zaintzeko.

PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOAK. PARTE-HARTZE SAIOAK.

SAN PEDROKO JUBILATUEN ELKARTEA

Data: 2025-04-07

Iraupena: 11.00 – 12.00

Tokia: San Pedroko Zaharren Egoitza

Parte-hartzaileak: jubilatuen elkarteko zuzendaritzako hiru kide (3 gizonezko).

Bileraren helburua: Pasaiako Babesleku Klimatikoen proiektua aurkeztea, identifikatutako kanpoko espazioen berri ematea eta hobekuntza zein espazio berrien proposamenak eta ekarpenak jasotzea:

- Identifikatuta dauden babesleku klimatikoak aztertu (hobekuntza beharrak, egokitasuna...).
- Kanpoko babesleku klimatiko gehiago proposatu (berdeguneak, parkeak…).
- Barneko babesleku klimatiko berriak proposatu (kultur etxeak, kiroldegiak, merkataritza-guneak, museoak…).

Bertaratutakoen ekarpenak:

Hasiera batean, ez zeuden guztiz ados aurkezpenaren proposamenarekin eta, gainera, Udalarekin desadostasunak adierazi dituzte. Horren ondorioz, aurkezpena ez zuten baliagarritzat jotzen. Hala ere, egoera hori jakinarazi eta eztabaidatu ondoren, konbentzitu dira aurkezpenean parte hartzeko, bertan lanaren edukiaren berri zuzenean jasotzeko eta informazioa hobeto ezagutzeko asmoz.

PROPOSATUTAKO BABESLEKU KLIMATIKOAK

- San Pedroko zaharren etxea:

Zaharren etxea Babesleku Klimatiko egokitzat jo ote daitekeen eztabaidatu da bileran zehar. Elkarteko 3 kideek adierazi dute ados daudela baina beraiena ez dela izango irekiearen eta itxieraren ardura, hortaz, Udalak hartu beharko luke ardura hori. Bestalde, sarrerako mantenua eta irisgarritasuna hobetu, kideak errazago eta seguruago izan dezaten.

- <u>Udal gimnasioa:</u>

Zaharren etxeko ondoko gimnasioa barneko Babesleku Klimatiko poisiblea izan daiteke, horretarako egokitze lanak beharrezkoak izango lirateke.

- <u>Nuestra Señora del Carmen eliza:</u>

- Erti Udal aretoa

- Falkon taberna ondoko plaza eta Torreko plaza



Ondorioak

Orokorrean, bilera modu egokian garatu da. Elkarteko hiru kideek beraien iritziak eta desadostasunak azaldu dituzte, bai proiektuari dagokionez, bai Udalarekiko harremanari dagokionez. Udalaren utzikeria azpimarratu dute, eta, bereziki, beraien instalazioaren sarrera egokitzeko premia, ireki eta ixteko aukera bermatzearen beharra, eta proiektu

honetatik kanpo herrian dauden beste hainbat eginkizun eta beharren inguruan ere hitz egin dute.

Azkenik, herrian itzalen galera azpimarratu dute (plaza eta parke handiak baina itzalik gabekoak).

PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOAK. PARTE-HARTZE SAIOAK

TRINTXERPEKO ZAHARREN EGOITZA

Data: 2025-04-01

Iraupena: 11:30-13:00

Tokia: Trintxerpeko zaharren egoitza

Parte-hartzaileak: 8 (5 emakume eta 3 gizon)

Bileraren helburua: Pasaiako Babesleku Klimatikoen diagnosian identifikatu diren Trintxerpe eta San Pedro barrutietako babesleku klimatikoak aurkeztea eta talde dinamika baten bitartez babesleku klimatiko hauek baloratzea eta berriak proposatzea. Talde dinamikan hiru gai aztertu dituzte:

- Identifikatuta dauden babesleku klimatikoak aztertu (hobekuntza beharrak, egokitasuna...).
- Kanpoko babesleku klimatiko gehiago proposatu (berdeguneak, parkeak...).
- Barneko babesleku klimatiko berriak proposatu (kultur etxeak, kiroldegiak, merkataritza-guneak, museoak...).

Bertaratutakoen ekarpenak:

TRINTXERPE

- **Futbito zelaiko atseden gunea**

Tiene muy mal acceso y muy poca sombra. Si se consiguiera más sombra habría que poner más bancos.

- **Domingo Blanco Parkea**

Se conoce como parque “Redondel” o “Parke Azkuene”.

Necesita más bancos con sombra y una mejora de accesibilidad.

El parque debería de estar cerrado para que los niños no se salieran a la carretera. Habría que vallar el parque por seguridad.

Los bancos deberían estar dentro del parque porque nos tragamos los humos de los vehículos.

En la zona verde los niños se ensucian con las cacas de los perros.

Poner una lona en el parque para guarecerse de lla lluvia.

- **Arrandegi kaleko plaza**

Se le llama Parque Serafín Esnaola.

El espacio verde no es accesible al público.

Hay que poner pérgolas o toldos para la sombra.

Honez gain, babesleku klimatiko hau handitzeko proposamena egin dute, hau da, plazako beheko aldeko berdeguneaz gain goiko aldea ere babeslekuaren parte izatea eta goiko gune hau berdatzea.

- Hacer una zona verde al lado del proyecto del parque infantil (haur parke berria eraikitzeko proiektua Correos eraikinaren eskuin aldean kokatzen omen da, beheko irudian eraikinak itzala ematen duen eremuan, hain zuzen).

- Adinberriren eraikina proiektatzen den eremuan (Ziriza eraikinaren eskuin aldean) kanpoko babesleku klimatiko berri bat eraikitzea proposatu dute.

- Gudari plaza

Las mesas de los bares de la plaza invaden los bancos públicos y también la plaza.

En la plaza hay un único toldo que solamente protege el parque infantil y no la plaza.

El parque infantil carece de bancos.

En todo el día hay sol en la plaza y no hay casi sombra.

Falta de pérgolas y soluciones verdes en la plaza.

SAN PEDRO

- Zona marítima de San Pedro: se han talado 42 árboles en todo el paseo marítimo y faltan zonas verdes para hacer frente al calor ligado al asfalto.

- Lonjako parkea eta plaza: gune hauek berdatu eta kanpoko babesleku klimatiko bihurtzeko proposamena egin dute.

- Los jubilados y las jubiladas den Trintxerpe han propuesto al Ayuntamiento aprovechar el proceso participativo sobre el futuro uso del quiosco para crear una nueva zona verde.

Barneko babesleku klimatiko berrien proposamena

TRINTXERPE

- Hogar del jubilado Trintxerpe (propuestas de mejora: ventiladores, calefacción, ascensor, etc.).
- Ambulatorio de Pasai San Pedro
- Tenencia de alcaldía de Trintxerpe
- Iglesia de Nuestra Señora del Carmen
- Karmengo Ama IPI Ikastetxea
- Ziriza etxea (badirudi eraikin hau udal jabetzakoa izatea lortu dela)

SAN PEDRO

- Pasaia-Lezo Lizeoa San Pedroko Ikastola

Informazio gehigarria:

**Pasaia tiene un problema estructural de base de falta de accesibilidad y de falta de calidad de vida. La idea de los refugios climáticos está muy bien, pero Pasaia esta “vendido” por el puerto y el Ayuntamiento debería pelear más para solucionar este problema

**Problema grave de ratas en el pabellón de grano cerca de la rotonda de acceso a Trintxerpe y también problema de plaga de palomas.

**Problema de cucarachas en el paseo que se sitúa entre IPI Karmengo Ama y Trintxerpeko futbol Zelaia.

PASAIAKO BABESLEKU KLIMATIKOAK. PARTE-HARTZE SAIOAK

HERRITARREI ZUZENDUTAKO ONLINE GALDETEGIA

Erantzun kopurua: 10

Barrutiak: 3 erantzun Donibanetik, 4 Antxotik, 2 San Pedrotik eta 1 Trintxerpetik

EKARPENAK

Azpiegitura berdea

Arrokaundietako aterpetxe ingurua, Platako farorako bidea, Antxoko etorkizuneko boulevard-a eta merkatu ingurua proposatu dituzte herritarren azpiegitura berdearen mapan gehitzeko.

Herritar batek dio lonja gaineko eremua ez litzatekeela azpiegitura berdearen parte izan behar eta baratzen eremua ere ez, zikinkeria eta sastrakaz beteta dagoelako (azken hau eremu potentzial bezala proposatzen da proiektuan).

Etorkizuneko gune potentzialei begira Antxoko boulevard-a, Luzuriaga ingurua, ikastola, eta ibaiondo proposatu ditu Antxoko herritar batek. Gainera, topoaren eraisketak utziko duen eremua kontuan hartu behar dela eta frontoiaren eta elizaren artekoan berdeguneak sortzea ere baloratu beharko litzatekeela dio beste batek.

Gune berdeak sortzeko autoak ez lehenestea eta pertsonak eta inguruari garrantzia ematea beharrezkoa dela uste dute.

Kanpoko babesleku klimatikoak

Donibanen Bonantzako kumun garbigarrien atzeko estalkia aipatu dute kanpoko babesleku moduan,

Ibaiondoko eremuan zementu gehiegi dagoela eta zuhaitz gehiago jartzeko beharra antzematen dute herritarrek.

Antxon, Luzuriagako parkera eta Ibai Ondo lotzen duen bidan, autoak kendu eta lore ontziak ezartzea proposatzen du herritar batek eta aldi berean, oinezkoentzat aipatutako bidezidorra konpontzea eta Hamarretxeta kalean zuhaitz gehiago landatzea.

San Pedroko herritarrek diote, bertan babesleku klimatikorik ez egotea ez zaiela egokia iruditzen.

Barrualdeko babesleku klimatikoak

Galdetegia erantzun duten herritarretatik bakarrak proposatu du barnealdeko babesleku klimatiko bat: Antxoko eliza.

Bestelako ekarpenak

Donibaneko herritar batek dio Meipi plaza eta Jose Joakin Otaegi plaza babesleku klimatikoen sarean gehitzea ez dela egokia, Donibaneko eremu beroenak direla iritzita. Bonantzako eremutik

Bizkaia plazarako bidea dela freskoena eta ondo legokeela Bizkaia plazan pergolaren bat jartzea udan itzala sortzeko.

Antxoko ibaiondo plazan zuhaitz gehiago landatzeko beharra antzematen du Antxoko herritarrak.

Trintxerpeko herritarrak dio gune berdeetan mahaiak egon beharko liratekeela.